

Zazpi urte

2011ko martxoaren 11n leher-tzen Fukushima zentral nuklearra. Telebistan emandako irudiek leherketa unea eta ondorengo laino zuria betikotu zituzten. Hurrengo egu-netako eta hilabeteetako albisteetan garrantzi berezia izan zuen Fukushima, baina egun gure munduak daraman abiadurak enegarren posizioan birko-katu du gaia; are gehiago esango nuke, jada badagoela geure artean Fukushima zer den ez dakien belaunaldi gazte bat.

Neurri batean normala da Fukushima historiaren entziklopedian galdurik geratzea beste hainbeste gertaera bezala. Gertaera historikoen ondorioak etenik gabe pairatzen ari gara, batzuetan la-tzak izaten dira batzuentzat, hobeak besteentzat edo auskalokoak gainera-koentzat. Gizarte sektore batzuentzat garrantzizkoak direnak bizirik mantendu nahi izaten dira hain modan dagoen "memoria historikoaren" bidez, baina nago Fukushimarena ahaztuta bai, bai-na bizirik dagoen gertaera dela, hau da, oraindik ez dela historia.

Leherketa ondoren deserriraturakotako populazioaren zati handi bat bere jaioterritik urrun bizi da eta itzuli direnak erradiazio maila asko edo gutxi dagoen lekuetan bizi da eta horien artean tiroide minbiziak, suizidioak eta gaixotasun



Joxerra Aizpurua
INDUSTRIA INGENIARIA

Isiltasuna eta ezezagutza baino ez daude Fukushima inguruan. Inork ez du txintik esaten eta Japoniako Gobernuak eta populazioak ordaintzen segitzen dute

arraroak handitu dira. Zentrala ez bertzeko etenik gabe ari dira ura botatzen eta ur hori lurrazpiko urekin nahastu ondoren itsasora edo auskalo nora isurtzen da. Bitartean ez dakite ongi nola dagoen erregaia, bidalitako robotak

bertan hil baitira. Itsasoko erradiazio maila ez da gehiegi handitu, baina bai pixka bat eta ikerlariak ez datoz bat denboran luzatzen den erradiazio baxuaren eragina zein den esatean.

2016an Fukushimaren kudeaketaz arduratzen den TEPCO enpresaren arabera, 30 edo 40 urte behar izango liriteke zentrala desmuntatzeko eta 170.000 milioi eurotik gorako kostua.

Gaur ordea, isiltasuna eta ezezagutza baino ez daude Fukushimaren inguruan. Inork ez du txintik esaten eta Japoniako Gobernuak eta populazioak ordaintzen segitzen dute eta segituko dute hamarkadetan egin beharreko lanak; eta zentralaren inguruan bizi direnen artean azterketa estatistikoak egingo dira gertatuko zaien gaixotasun arraroekin. Bitartean munduan energia nuklearraren inguruan gertatu zen balaztatzea ahaztu egin da eta berriro azelerazioaren garaian gaude, Euskal Herrian ere bai, ez baitugu ahaztu behar urteko sasoi askotan Frantziari erositako energia nuklearra kontsumitzen dugula.

Ahaztu dugu, ez dugu ezer ikasi eta bitartean Fukushima ez dago lozorroan, ez da estatistika huts bat, belaunaldi gazteei igorritako eta bizirik iraungo duen errealitate gazttoa da! ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA